

## **NITAZ OROITUKO ZAREA?!**

Maialen Dagorret, 14 urte

*Itsasu*

Oroitzen zarea lehen elkartzeaz,  
Aurkezpen eta behako herabeaz,  
Udaberriko goiz fresko eta argiaz,  
Suzko eguzki-sortzearen magia?  
Begiradak truka, bihotzek maitatu,  
Gure geroa betirako elkartu.

Jendearengandik biziki hurbila,  
Gaueko izarren dirdira bezala,  
Hain abila, alaia eta umila,  
Ene bihotzeko argi ezin hila!

Oroitzen zarea, iragan denboraz,  
Lagunen arteko zorion garenaz,  
Suaren inguruan egin lehen dantzaz,  
Haizearen ferekaz eta txistuaz?  
Mendi tontor gorenean ginenean,  
Erregeen antzo, mundua aitzinean.

Zu baitako ezta, lainotasuna,  
Bizitzeko nahia eta maitasuna;

Zure egoeraren larritasuna,  
Baina gainditu behar eritasuna.

Oroitzen zarea, azken zorionaz,  
Geroa aldatu zigun istripuz?  
Baita azken egunetako kemenaz,  
Mundu hau uztearen ikaraz, penaz?  
Ez dakit zure ala nire zigorra,  
Baina Jauna zein den zorrotza, gogorra.

Lehen eta azken bihotzeko altxorra,  
Zu gabe gelditzeaz dudan beldurra,  
Nik, zuk, biek gainditu behar patarra,  
Baina erori-eta, azpian labarra.

Oroitzen zarea, ene malko haietaz,  
Ohearen ondoan egin otoitzaz,  
Azken begiradaz eta zure hitzaz,  
Burua pausatuz hartu azken hatsaz?  
Jaunak nire argia itzali baitu,  
Betirako naiz itsutu eta mututu.

Bakarrik utzi nauzu, zilo honetan,  
Penaren penaz, malkoak begietan,  
Zure irriño kokina ametsetan,  
Nire babesle ederra izarretan

Zeru mugaezin horretan gordea,  
Bederen nitaz oroituko zarea?!